

Atxularreko begipean

SANTI URRUTIA

«Gauza bat dago haltuetatik Euskalerria zaintzen duena: Axularren begia.»

Gabriel Aresti

Urriko ilargi zuridun gaua da, izarrak ez dira ikusten. Baina erro-tako mutikoak beste argitasun bat nabaritzen du goiko mendiko haiztaren erdian. Ta galdetzen dio amona zaharrari:

—Amama, zer da Itxinan ikusten den argi hura?

Amonak urrunerantz zuzentzen ditu bere begi nekatuak. Gero dio: «Ibari:»

—Otxabideko sugetzarrak ahoa zabaldu dik, eta ahotik sua botatzen dik. Oso haserre diago Otxabideko sugea.

Otxabideko haizpeko sarreran —Itxina kanpoko haitz orman kokaturiko haitzuloaren atarian— su atseginaren ondoan jezarrita geunden biok, leize barruan igarotako nekealdiaren ostean berotasun hartaz gozaten. Kanpoan gaua zen, eta kobaren ahoak biltzen zuen perimetroan ilargi zuriak argituriko paisaia harrigarria begiztaten genuen. Aurrean Pagozabaleko larre horia geneukan, ta urrunean gailurretako naitz zuria nabarmentzen zen bakarrik itzal beltzen artean. Ibarretan herrietako argiak puntutxo zuri ta gorriskak ziren, ta mendietan baserri batzuen argi bakartiak ere ikus zitezkeen.

Gogoratzen genuen suaren ondoko epelean, Otxabideko leizera sartzea nola bururatu zitzaigun. Hainbat gauza entzuna genuen Itxinari buruz, baina denetatik harrigarriena behin ta berriro komentatzen ari ginen hura zen, erreka alboan bizi den Olako atsoak kontatu zuena. Hau da, gutxi gorabehera, berak azaldu zigun kondaira:

«Hiru mendi tontor ikusiko dituzue Itxinako sakonunearen inguruan, erpin bakoitzean bana. Lekanda duzue handiena, Gorosteta eta Aizkorrigan dira beste biak. Tontor hauek bata bestearekin lotuta daude itzelezko haitz ormetaz, eta hain dira handiak berauek, bada zer esango dizuet, Ibar-goengo Dorre Etxearen murailak heurak baino hamaika bider altuagoak eta sendagoak dira.



Jakin behar duzue bada, hango barruko sakostaren lurpean herensuge bat bizi dela, gutziz ikaragarria, ta zazpi burukoa. Suge honen ahoak negargarriak dira, eta Itxinan zehar agertzen dira, azpirik gabeko leize ilun beldurgarrien moduan, eta zabal zabalik daude arretarik barik dabilen laguna edo aberea irensteko prest. Buru batzuk besteak baino handiagoak dira, eta baten ahoa Urrikobasoko Lezandian dago, Lexardiko txabolatik gora joanda topatzen dena, Igalirrintzako gailurraren azpikaldean. Beste bat Supelegor izeneko haitzuloan dago, eta hauxe da Itxinako laminen bizilekua. Gainerakoak erdialdeko arrakalan zabaltzen dira, Itxulegorreko haizpean esate baterako. Honen ondoan, Aslaor trokan, ageri da leize handi bat, sakona eta beldurgarria hauxe, inon bada. Baina, antzik eduki ez arren, handiena Itxinako malkarditik kanpoalderantz,

itsasorantz, begiraten dago, ez-kutuan, Otxabideko haizpetik. Eta Atxularreko pasabidea beronen begia da. Herensugeak ezin du ikusi begi horretatik, Itxinan bizi den Jentilak atera egin ziolako. Horregatik dago Otxabideko herensugea beti haserre, eta haizpean sartuz gero, zurrumurru gor bat aditu ahal da, piztiaren erraie-tatik sortzen dena.»

Gaurregun horrelakorik inork sinesten ez duen arren, kontaktuzun hori entzun eta gero jakinnahi handiagoa sortu zitzaigun haitz, leize ta sakosta haiek ezagutzeko. Luzaroan itxaron gabe, Urriko larunbata goiz bat zen Pagomakurretik Otxabideko leizerantz abiatu ginela. Bidean pagoei lehen orriak erortzen ari zitzaizkien, ta arbola moeta asko zegoen beren frutu gorriak gainezka erakusten, elorriak, gorostiak, baita agin bakaren batzuk ere bazeuden —Gorbeialdea da hauek daueden Bizkaiko leku bakarra— hazi pozintsuz beteta. Goiko larrera heldu ondoren malkardira hurbildu ginen, gure gain Itxinako sarbidea den Atxularreko begia geneukalarik. Naturak sorturako haizpeko

pasabide hau oso nabarmena da, ziklopeen harresi batetan zabaldutako atearen itxura dauka. Ate horrek errektangulo nahiko perfektua osotzen du, goian alde batetik moko bat luzatzen zaiolarik, ta barrutik miru buruaren antza hartzen du. Miru burua grisa da lainoa dagoenean, eta paisaiaz betetzen da lainoa joaten denean. Bizkaiko lurraldearen zati on bat ikusten da bertatik, eskuinaldean agertzen den Anbototik hasi ta itsas ondoan dagoen Jata mendirainoko bitarte guztia.

Atxularreko begipera heltzean eskuinaldeko malkardian dauden sargu ugarietariko bat Otxabideko leizearena da, orman arrano habiaren antzean eskegita dagoelarik, haitzek eta landarediak ia osoki estalduta. Hara iristeko eskalatu egin behar da apur bat, nahiko eskuragarria den arren. Kobaren atariko aldatsean hosto handi ta zabaldu sendabellar bat hazten da, Peucedanum Ostruthium

izenekoa, leku hozpelak eta hezeak gustatzen zaizkion alde garaietako landarea. Berauek urrunetik destakutzen dute orman, leizearen sarrera seinatzen dutelarik beren presentiaz.

Barrunbea 1967an aurkitua izan zen, Espeleologiazko Ihardunaldien kanpaina batetan. Hurrengo urtean egin zen erabateko atakea, Bizkaiko G.E.V.-ko talde bat astebete egon zelarik barruko pozu bertikala eta ondoren zabaltzen diren galeriak esploratzen. Garai hartako Bizkaiko haitzularik luzeena izatea suertatu zen, sei kilometro baino gehiagoko luzera neurtu bait zuten. Kobazaleentzat haitzulo mitikoa bihurtu zen sasoi hartan, bere pozu bertikalagatik, bere galeriengatik, eta batez ere Itxina azpiko erreka aurkitu zelako bertan, hainbat espeleologo urte askotan horren bila ibili ondoren.

Lekoreko espeltasuna utziaz sargura heldu ginenean berehala ohartu ginen barru aldetik sortzen zen aide heze eta freskoaz. Ekipoa eta sokak prestatu ondoren ahoan barrena abaitu ginen, haize korrante indartsuak jotzen zuen pasabide batetaraino heldu arte. Berau katuzuloaren antzeko leku hestua zen, eta narrazka igarotzean korranteak kaskoko argia itzaltzerainoko oldarrez ekiten zuen. Halako haizea egotearen zergatia ondoren azaltzen da, 150 metrotako amildegi baten ertzerantz helduz. Sakontasun hura atzeman behar genuen lurpeko mundu estrainioa ikusi eta esploratu nahi bagenuen.

Lurretik altxatzen diren estalagmita erraldoi bi daude amildegiaren buruan, haitzuloaren hortzak irudi, azpiko iluntasun beltz itzelaren ataria zaintzen. Soka eskuinekoari loturik beherantz abaitu ginen, azpian ikusten zen lehen larrainera heldu arte. Frakzionamenduak jarri ondoren bigarren jauzi bat jaitzi genuen, leize erdian ormek oratuta dauden haitz bloke erraldoi batzuen gainea atzemanik. Hirugarren saltoa da handiena eta beldurgarriena. Soka zuria sakonean galtzen den hari bertikala besterik ez da, inguruko ormetan haitz beltz eta zorrotzak ikusten dituzu, esploratzaileari haginez beteriko ertzak erakusten dizkiote. Hainbat



metro jaitsi ondoren lurpeko muga urrun hartan jarri genituen oinak.

Itxinaren azpia zeharkatzen duten galeri ezberdinek laberintoa osotzen dute. Leizeen eta koben barrunbeak —Supelegor, Itxulegor, Lezandi biak, ikusten ari ginen Otxabideko leizea, eta besteak— elkarren gainean pilatzen dira, bakoitzak bere alturan jarraitzen du bidea, eta gaurdaino esploratzaileek ezin izan dute bata bestearekin komunikatu dezakeen pasabiderik aurkitu, horretarako ahalegin handiak egin badituzte ere. Gu laberintoaren alderik sakonenera eramango gintuen zintzuraren azpian geunden. Otxabideko galeria nagusia arku ia perfektoa da, dena beltz eta handi, estalagmitazko formazioak urriak direlarik. Goitik beherako harri beta zuriek gurutzatzen dute haitza, eta lurrraren erditik erreka agortua doa, uarka labain eta horiska daukana.

Ezkerrean eta eskuinera galerien sarguak utziaz, erdiko bidetik goaz aurrerantz, eta lur labainean irrutatzen gara noiz behinka. Bapatean harritzen gaituen hots bat entzuten dugu: erreka urarena da, luzaroan gure oin zarretatik aparte espazio sakoneko ixiltasuna urratzen duen soinu bakarra. Ubide landu eta lisatutik dator ur xuxurlaria eta

osin beltz batetan galtzen da. Berori da Arrabako landan murgiltzen dena, eta Itxinako ur guztiak bilduz Otxabideko galerietatik igarotzen dena, geroago Aizkorrikaneko tontorraren azpian berragertzeko, Aldabideko iturrian.

Une batean errekatik ibili ondoren bestaldean irekitzen diren galerietan barrena abaitu ginen. Bidea iluna da oso, behean hare beltzaz gainezka dagoelarik, eta hain berdintsu ikusten da edonon, ezen argitasuna eta geriza ezin baitira bereiztu, nahastu egiten direlarik behe eta gain uneak. Handik joatea lainopeko elurtzaren negatibo batetatik ibiltzea da.

Itzuleran galerietatik gora egin ondoren leizea igo behar da. 150 metroko desnibela gaintzea nekoso bihurtzen da. Egundoko pozez abaitzen gara irteerantz, sokak bildu ondoren.

Kanpoan gaua zen, eta kobaren atarian piztutako suak inguruko

hormak argitzen zituen, eta garrek iluntasunetik sortzen ziren itzalen aurkako etengabeko burrukan ziharduten, Noizean behin barrurantz abiatzen ginen ur bila, argiaren eta berotasunaren erreinuko mugak igaroz, eta leizearen sakonetatik jalgiriko haizearen hots misteriosa aditzen zen, lurpeko ekaitzaren zurrumurru urruna, herensugearen haserrea adierazten zuena.

Urriko ilargi gauean Olako mutikoak ez du iada argitasunik ikusten goiko mendian.

—Amama, Itxinako argia amatatu egin da.

Amonak utzi dio atarian egurra biltzeari, zutitu da eta une batzuk begira egon ondoren, erantzun dio:

—Otxabideko sugeak ahoa itxi dik, oraingoan betirako.

Cueva de Otxabide Pagozabala Gaueko Axpea (Orozko). Esta cueva se halla fuera del circo rocoso de Itxina en la falla N. del Aitzkorri y antes de entrar por el Ojo de Atxular, a su mano derecha, es decir, hacia el W. Se encuentra aproximadamente a la misma altura del Ojo de Atxular y a unos 500 metros. Boca de 4 m. de alta por 3 m. de ancha, orientada al E. Profundidad, 240 m. Desarrollo superior a los 6.000 m. Dentro existe una sima de 750 metros. —Grupo Espeleológico Vizcaino (1985) «Catálogo de Cuevas de Vizcaya», Cueva nº 408.